

lako gauzetarako ez gara kontserbadoreak, bestetarako garen bezala, eta horregatik darabilkigu hizkuntza hain aldakor.

Lhandek dakar *Jauretxe*, «*maison seigneuriale*» bezala; baina ber-berak, *Jauregi*, «*château*», «*palais*», oso ondo berezirik.

JAURETXE, JAUREGI JATORRAGOAREN KONTRA. Han eta hemen, geroago eta maizago irakurtzen dugu *Jauretxe*, *Jauregi*-ren orde. Elkarren artean desberdinak izatez aparte, itxuririk gabeko bitxikeria iduritzen zaigu.

*Orduen Liturgia* (1977) edo hasi zen «*casa del Señor*» adiaraziz *Jauretxe* erabiltzen, baina euskaldun berriak «*palacio*» orde erabiltzen hasi zaizkigu.

Elizbarrutiarteko Liturgi-euskeratzaille Taldeak ere hobe zuen Duvoisin kapitainari jarraitu balio; baina, zoritxarrez, ho-